Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko urtarrilaren 8a, osteguna — 4 — Jueves, a 8 de enero de 2026



## ZEGAMAKO UDALA

*2025 eta 2026. urteeterako Zegamako Udaleko zerbitzuko enplegatu publikoen ordainsari gehikuntza.*

Zegamako Udalak, 2025eko abenduaren 17an egindako ohiko Osoko Bilkuran, honako erabakia hartu du:

— Eudelek proposatuko soldata igoera onartzea, hala badagokio. Eudeletik ondorengo gomendioa bidali da:

*Lehenengoa. 2025. urteko ordainsarien igoera eta nola burutu.*

1. Onartutako legezko % 2,5eko gehieneko igoera globala onartzea, 2024ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, azken horietan barnean direla ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan jasotako ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria. Ordainsarien igoera hori homogeneoki egingo da, konparazio-aldi bietarako, bai langileen kopuruari dagokionez, bai langile-antzinatasunari dagokienez, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

2. Errege Lege Dekretuaren 3.1 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, Eudelek gomendatzen du 2025eko ekitaldiari dagozkion zenbatekoak eta atzerapenak 2025eko abenduan ordaintzea.

*Bigarrena. 2026. urteko ordainsarien igoera.*

Onartutako legezko % 1,5eko gehieneko igoera globala onartzea, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, errege lege-dekretu honetan onartutako ordainsarien igoera barne. Ordainsarien igoera hori homogeneoki egingo da, konparazio-aldi bietarako, bai langileen kopuruari dagokionez, bai langile-antzinatasunari dagokienez, eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

Errege Lege Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutako % 0,5 gehigarri eta finkagarriari dagokionez, 2026ko KPIaren bilakaera eta Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen duena hartuko dira kontuan, Errege Lege Dekretuan jasotakoaren arabera, horren ordainketa egin ahal izango den jakiteko. Eudelek horren guztiaren berri emango dizue, dagokion unean.

— Aho batez onartzen da Udaleko langileen soldatan Eudelek proposatutako igoera aplikatzea.

— Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki oholean argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Donostiako Administrazio Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Nahi izanez gero, eta administrazioarekiko auzien bidera jo aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Zegama, 2025eko abenduaren 18a.—Iker Zubeldia Katarain, alkatea. (8731)

## AYUNTAMIENTO DE ZEGAMA

*Aprobación del incremento de las retribuciones del personal empleado público al servicio del Ayuntamiento de Zegama para los años 2025 y 2026.*

El Pleno del Ayuntamiento de Zegama, en sesión ordinaria celebrada el día 17 de diciembre de 2025, ha adoptado el siguiente acuerdo:

— Aprobar, en su caso, el incremento salarial propuesto por Eudel. La recomendación de Eudel fue la siguiente:

*Primero. Incremento retributivo 2025 y efectividad.*

1. Aprobar un incremento global del máximo legal permitido del 2,5 % respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2024, incluido en estas últimas el incremento retributivo adicional y consolidable del 0,5 por ciento recogido en el artículo 6.2 del Real Decreto-ley 4/2024, de 26 de junio. Este incremento retributivo se considerará en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad de este y tendrá efectos económicos desde el 1 de enero de 2025.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 3. 1 del Real Decreto Ley, Eudel recomienda que el calendario de abono de los importes y atrasos correspondientes al ejercicio 2025 se realice en el mes de diciembre de 2025.

*Segundo. Incremento retributivo 2026.*

Aprobar un incremento global del máximo legal permitido del 1,5 % respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2025, incluido en estas últimas el incremento retributivo aprobado en este real decreto-ley. Este incremento retributivo se considerará en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad de este y tendrá efectos económicos desde el 1 de enero de 2026.

En cuanto al 0,5 % adicional y consolidable recogido en el art. 2.2 del Real Decreto Ley, se estará a la evolución del IPC del año 2026 y a su publicación por el Instituto Nacional de Estadística, para ver si procede su abono de conformidad con lo recogido en el Real Decreto Ley, de todo lo cual les informará Eudel en su momento oportuno.

— Se aprueba por unanimidad la aplicación del incremento propuesto por Eudel en el salario del personal del Ayuntamiento.

— Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Contra la presente Resolución, que es definitiva en vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación. Con carácter potestativo y previo a la vía contencioso-administrativa, podrá interponerse recurso de reposición ante el órgano que dictó la resolución en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

Zegama, a 18 de diciembre de 2025.—El alcalde, Iker Zubeldia Katarain. (8731)

EK\CV GAO-I-2025-08731